

B

BARREN



**Eguneroko erronka,
kalean ibiltzea**

Ezagut ezazu zure alderik freskoena



"Teikitan ezagutu nuen nire alderik freskoena, babarrun-ale lehor batetik gutxin eder berria sortu zela ibusi nuenean. Bizialak eta naturalak aurrera egiten juten gure harridura eta gozamenerako. Eta orain, horrenbeste urte pasa direnean, zirrara bera sentitzen dut baina Udal Merkatuan oraingoan. Bertan inguru natural batera bainaramate boloreek, usainek, tratu atseginak eta balitateko produktuek. % 100 naturalak eta oso, oso freskoak dirulako."

Eros ezazu zure **Udal**
Merkatuan

Nagusiak gazte

Ez naiz ni hemen esplikazio soziologikoak ematen hasiko, baina ingurura begiratzen badugu, segituan igartzen da paisaia asko aldatu dela. Arlo askotan aldatu da, egia da, baina adinez gorantz doazenak gero eta gehiago direla ezin uka.

Sasoi batean, erretiroa hartzerako, pertsonak zahartuak zeuden. Baina gaurko nagusiak gero eta gazteago ikusten ditut, ilusioz beteak, gaztetako amets eta desioak betetzen, ikasten, kirola eginez, lanean, paseoan edo bilobak zaintzen, osasuntsu.

Eta, egia esan, hori da orain tokatzen zaizuen, disfrutatzea. Batzuek aurre-erretiroa hartu duzue, beste batzuk noiz iritsiko kontuak egiten ari zarete, agian beste batzuk momentu hori inoiz ez iristea nahiago duzue. Zer egin, nola antolatu bizitza, beti egin duguna egiteari uzten diogunean? Agian, seguruenik, hau irakurtzen duzuen askok barre egingo duzue, "nik badakit zer egingo nukeen" pentsatuz.

Erretiro ordua iristen zaigunean, deskantsatzeko, familiarekin egoteko, bidaiatzeko eta kirola egiteko aprobetxatuko dugula pentsatu izan dugu. Baina aspaldian, Debabarreneko Esperientzia Eskola koordinatzen nabilenetik, konturatu naiz ikasteko, harremanak lantzeko eta gizartearekiko sentitzen duten konpromisoa lantzeko erabiltzen dutela erretiratu berriek bizitzako etapa berri hau.

Orain urte erdi, ilusioz eta jakinmirik ekin nion pertsona nagusiekin lan egiteari. Zuek daukazuen esperientzia, egiteko gogoia eta jakinduria bidelagun ditugula, proiektu berri asko aurrera eramaten ari gara. Batzutan "bartzarrak nahastatzen", zergatik ez esan, baina beti beharrezko jotzen dituzuen beharrak asetu nahian. Esperientzia eskolatik sortu dira hainbat egitasmo: Ikasten, Nagusien Kontseilua, Kaleetan Kantuz edo oraindik kalera ateratzeko aukera izan ez duten beste zenbait egitasmo.

Nik orain arte bezala gogotsu lanean jarraitzeko eskatu nahi dizuet.

Itziar Elustondo



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Erretiratu berriek ikasteko, harremanak lantzeko eta gizartearekiko sentitzen duten konpromisoa erabiltzen dute bizitzako etapa berri horretan"

**BETE DUZU ALBISTEAK
E-POSTAZ
JASOTZEKO HARPIDETZA?**

**EGUNERO
BIZPAHIRU
ALBISTE JASOKO
DITUZU!**

www.elgoiBARREN.net



Albisteak ePostaz jasotzeko

Izena

ePosta

Harpidetu

Harpidetza eten

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



**“Arabako
neurria
perretxiko
zaleok
hara ez
joateko da”**

TXOMIN BARRENETXEA

PERRETXIKO ZALEA

Txomin Barrenetxea Borrajen baserrian jaioa da, Aiastia-San Migel auzoan. Zazpi-zortzi urterekin ekin zion hango basoetan perretxikoak biltzeari. Ahal zuen guztia biltzen zuen, kalean saltzeko eta baserriaren ekonomiari laguntzeko. Gerora, kalera bizi izatera joan zenetik, ez du perretxikorik saldu izan, baina zaletasunari eutsi dio, eta sarritan joaten da mendira, saski eta guzti. Araban kaleratu berri duten neurria hemendik hara perretxikotan inor ez joateko moduko erabakia da, Txominen iritziz. Bestalde, zaletasunarekin lotuta, Karakate mikologia elkarteak Deba bailarako perretxiko erakusketa egingo du azaroaren 2an, Kultur Etxeko sotoan, 11.00etatik aurrera.

Lehen perretxiko gehiago zegoen?

Geurean, kurutze azpian pagadi handia zen. Eta hor pagadi asko zeuden garai hartan: Berdeskundekoa, gurea, Belarretak ere ba- zeukan... eta hor pagadi asko zegoen. Pe- rretxikoa, egia esan, denean zegoen. Baina orduan ere jendea kaletik etortzen zen perre- txikotara. Nire *tío* Txomin, Alhondegian beha- rra egiten zuena Azpitarterekin, Oa-eta ta- kian-takian joaten ziren perretxikoak biltzera. Orain lantzean behin irteten dute, euriarekin. Orduan irteten ez bazuten, ez genion horrela- ko kasurik egiten. Irten, orduan, ez zuten gehiago irteten, baina nik uste dut klima ho- bearekin sarriago irteten zutela. Gero esaten da perretxikoak galdu egiten direla ebaten ez baditugu, edo otarrean hartuta hazia jausten ez bada galdu egiten dela. Nik ez dut esaten ezetzik, baina esaten dut perretxiko txarra han gelditzen dela, han ustelduta. Bestela eduki beharko genituzke ostikoarekin zapal- tzeke beste. Norbera ibili ezinda beste, hain- beste ugaltzen bada...

**“Urte oso eskasa dugu.
Euriaren zain egon gara
denok eta egin
duenean eman du”**

Orain pinudi gehiago egoteak perretxiko mo- tan eragingo du...

Baita belarrak eta lar askok! Orduan joaten ginen lekuetara, gaur sartu ere ezin da egin!

Urte txarra dugu, ezta?

Oso eskasa. Esaten dute Soria aldean eman duela brote txiki bat, baina aurten oso eska- sa. Euriaren zain egon gara denok pozik, zo- ratzen, eta euria egin aurretik hego haizeare- kin onddo batzuk eman zituen, oso gutxi. Eta euria egin duenean, zain eta zain egon gara eta ez du eman. San Migel bailarara joaten bazara bi-hiru hartzeko moduan irten du, (hartzen badituzu), baina dozena bat edo do- zena bi hartzeko beste ez da egon.

Saritan joaten zara perretxikotara?

Perretxikoa dagoen usainean ia-ia eguneru.

Zein ingurutara?

Jolin! Mendira.

Soria aldera?

Izan naiz Sorian ere, baina oso gutxi dago.

Plastiko poltsarekin ala otarrearekin?

Otarrearekin. Eta esaten dute euskaldun makila dela hurritzezkoa, eta zenbat eta lo- diago hobe, bateren bat kontra badator jo- tzeke [barre].

Plastiko poltsaren laguna ez zara, orduan.

Plastikotan egosi egiten da perretxikoa, er- tzak apurtu eta izorratu ia. Zatartu egiten da.

Zein ordutan ekiten diozu?

Ezin daiteke esan. Arabara bazoaz bidean behar duzun denbora kontuan hartu behar da: eguna zabaltzean han egon behar duzu, bestela beste batzuen atzetik ibili behar duzu eta hori ez zaigu gustatzen.

Denboraldi ona bada, behar dena baino gehiago hartzen duzu?

Behar? Zelan da hori? Batzuek saldu egiten dute. Hamabost urtez geroz, kalean hasi nin- tzenetik, harrezkeroz ez dut perretxiko bat saldu. Baina aurretik bai, dirurik ez geneu- kan-eta! Nik iaz asko hartu nituen, kilo asko: andreak eta biok egunean 25-30 kilo hartzen genituen, baina bat ere ez dugu jaurti. Garbi- tu, xehetu, oliotan erre tamaino bateraino, gero laga hozten eta sartu poltsetara, kendu haizea eta izozkailura.

Ikusten duzu ETBren perretxikoei buruzko programa?

Bai. Ni gauza batzuekin ados ez nago. Hazia jausten dela bai, baina ez nago zeharo ados. Orain, kirtena ebaki behar da, hori bai.

Iaz Ultzaman mugatu zuten perretxiko kopu- rua eta orain Araban. Zer irizten diozu?

Nafarroako Ultzaman ipini zutena (hamar kilo hartu ditzakezu) niretzat hobeto dago Araba- koa baino. Arabakoa oso gaizki dago, nire- tzat. Guretzat, perretxiko zaleontzat, autoa ez arrankatzeko modu bat da hori, hemendik hara ez joateko. Aurten nik sei buelta egin di- tut Arabara. Batean 23 urretxa ekarri nituen eta lau onddo eta lau kuletro, gorringoak. Gehiago beste ezer ez dugu ekarri. Hurren- goan hara goazenean brotea badago eta hi- ru onddo bastante handiak hartzen badituzu egin dituzu bi kilo. Besteeri zer egin behar die- zu? Ostikoarekin jo eta han laga? Haiek us- teltzen laga mendian? Hori oso gaizki dago. Ipini izan balute hiru kilo t'ardi edo lau kilo, isi- lik egongo nintzateke. Iazko boladan, bi kilo hartuko nituzkeen hamar minutuan. Eta gero zeregin behar dut hemendik hara joanda, etorri hainbeste kilometro eginda? Etxera?

Oier Narbaiza

Onddoak ez galtzeko sentsibilizazio kanpaina jarri du martxan Karakate elkarteak



Deba bailarako perretxiko erakus- keta ikusi ahal izango da Elgoibarren azaroaren 2an, 11:00etatik aurrera, Kultur Etxeko sotoan Karakate mikolo- gia elkarteak antolatuta. Aranzadi zien- tzia elkartearen aholkuak jarraituz pres- tatu dute erakusketa.

Karakatek albo batera laga du sa- soi bateko lehiaketa. Erakusketaren bi- dez, onddoak eta natura kontserbatze- ko sentsibilizazioa sustatu nahi du. Ho- ri dela eta, aholku batzuk kaleratu berri ditu:

▲ Ez batu perretxiko zaharrik eta harra duenik.

▲ Ez batu ale gazterik, euren bizi- raupena kolokan jartzen da-eta.

▲ Ez batu eta ez apurtu ezagu- tzen ez duzun espezierik. Ikerketetara- ko bi ale besterik ez gorde.

▲ Batu osorik dauden aleak eta kontuz ibili ingurunea ez hondatzeko.

▲ Ez batu kantitate handirik, balia- bide natural mugatua delako, mendia- rentzako ezinbestekoa.



OZTOPOEN GAINETIK

Elgoibarren kalean barrena ibiltzeko oztopo asko daudela esango zenuke? Bada, oinez doanak ez ditu asko ikusiko, baina, aulkian doanak beste ikuspuntu batetik bizi du egunerokotasuna. Oztopo arkitektoniko nagusiak zebra-bideak dira, baina, gaizki aparkatutako autoek ere buruko minak sortzen dituzte. Eguneroko bizitza aulkitik zelan bizi duen azaldu du Gemma Agirregomezkortak; oztopoz oztopo, aurrera eginez bizi da elgoibartarra.

Edurne Burgaña

Bi hanken gainean ibiltzen direnek, sarri, ez dute inolako oztoporik bilatzen euren egunerokotasunean egiten duten ibilbidean. Baina ibilbide berbera gurpildun aulkian egin behar duenak trabak ikusten ditu han hemenka. Gemma Agirregomezkorta da adibide garbia; hala ere, Elgoibarren oztopo askorik ez dagoela dio: “Zebra-bideak dira oztopo nagusiak: koska handia edukitzen dute batzuk, eta aulkiarekin jaisterakoan aurrera erortzeko arriskua dago. Baina, bestela, Elgoibarren ez dago oztopo asko”, azpimarratu du.

Kristalak, oztopo handia

Urteetan etxetik ia irten gabe egon zen: “Izogailurik ez geneukan, eta anaiak lanetik irteteko zain egon behar izaten nuen, besoe-tan jaisteko. Horregatik, aulki elektrikoa lehen aldiz hartu eta merkatura bakarrik joan nintzen eguna oso berezia izan zen”.

Gabriel Krutzelegi kalean bizi da orain, eta auzoan bertan berdegunea dauka Gemmak. Hori, gauza polita dela dio: “Etxetik bueltatxo bat ematera irten eta auzoan daukadana bezelako berdegunea edukitzea luxua da. Baina, askok ez dute ingurua zaintzen”, dio.

“Urasandira aulkian joatea ezinezkoa da; planteatu ere ez dut egiten”

Izan ere, asteburuetan gazte asko ikastola pareko berdegunera joaten dela salatu du Agirregomezkortak: “Edata eta etortzen dira, eta botilak eta apurtu, eta kristalak lagatzen dituzte bertan. Behin, gurpilekin kristala za-

paldu eta errobera zulatu zitzaidan. Anaiak etorri behar izan zuen laguntzera. Gainera, *Argi* izeneko txakurra daukat, eta askotan oin azpian zauriak egiten ditu kristalekin”, azaldu du.

Hasi da negua, eta eguraldi txarrarekin, euriarekin, zaila da kalera irteea gurpildun aulkian: “Euriarekin irteea konplikatu da, aterkia esku batekin heldu behar dut, eta hain zehar badabil, ez naiz ondo moldatzen. Horregatik da hain garrantzitsua niretzako auzoan dudana berdegunea, bueltatxo bat ematera bada ere, bertara etortzeko aukera ematen didalako”, uste du.

Mendi aldera joatea gustatzen zaio Gemmari: “Etxe artetik irten eta Ermuaran-Sallobente edo Azkue-San Rokera joatea gustatzen zait: eta, beti izan da arriskutsua bide hori. Orain, obretan dabilta eta oraindik arriskutsuagoa da hortik ibiltzea, baina espaloia amaitzen dutenean, aurrera pausu han-

dia izango da. Aulkian bakarrik ez, oinez doazenezako ere segurtasuna emango du. Urasandira aulkian joatea ezinezkoa da; planteatu ere ez naiz egiten”, aitortu du.

Espaloian ere, traba

Elgoibarren ez dago oztopo arkitektoniko asko Gemmaren iritziz, baina oztoporik egon beharko ez lukeen lekuan behin baino gehiagotan topatzen du traba: “Askotan espaloio gainean autoak egoten dira aparkatuta, eta ez da tokirik egoten aulkiarekin pasatzeko. Beraz, errepidera irten behar izaten dut eta eskuarekin autoak gelditu”, dio.

Jakin badaki Gemmak arriskutsua dela errepidetik ibiltzea, baina, beste irtenbiderik ez dauka: “Behin, ia-ia jo ninduen furgoneta batek. Baina, espaloio gainetik joan eta amaieran auto bat baldin badago, berriz buelta eman, eta errepidetik joan behar izaten dut”.

Baina espaloitik joatea ere arriskutsua izan daiteke: “Euriarekin lurra bustitzen denean, askotan harri txikiak egoten dira lurlean, eta aulkiarekin irrist egiten dut. Aldapa pixka bat dagoen momentuan, aulkia errepide aldera joaten zait, eta oso arriskutsua da”.

Aulkia gurgilak lau hilean behin begiratzen ditu, baina lurra labaina egonez gero, hartutako neurri zorrotzenak ere ez du askorako balio.

Bizkarraldea, atzera

Zebrabideak dira Elgoibarren, aulkiarekin dabilenaren oztopo handienetakoa. “Anbulategi parean dago bat oso arriskutsua, eta Corres parean beste bat. Koska handia dago espaloia eta zebrabidea batzen diren tokian. Oinez doazenek ez dute igartzen, baina aulkiarekin muturrez aurrera erortzeko arriskua dago: niri behin gertatu zitzaidan eta bekain gaina ireki nuen hartu nuen kolpearekin”, gogoratu du Agirregomezkortak.

“Askotan harri txikiak egoten dira lurlean, eta euriarekin irrist egiten dut”

Koska duten zebrabideetan, aulkia bizkarraldea atzera botatzen du Gemmak. Horrela, erdi etzanda, koska jaisten aurrera erortzeko arriskua gutxitu egiten da. “Hala ere, beldurra pasatzen dut; eskuekin ahal dudana eta indarren heltzen diot aulkia”, dio. Baina aulki guztiek ez dute bizkarrekoa atzera botatzeko aukera.

Oinez doanarentzat herriko dendetan sartzea eguneroko kontua da, baina gurgilaren gainean ez da hain erraza: “Denda berrietan eta aulkia kontuan edukitzean dituzte, baina, gainerakoetan ez. Hala ere, ohituta nago eta kalean atzertzen naute: hori bai, txaketaren bat erosiz gero, herri guztiak ikusten du”.

Komunera joan gabe

Oztopoz oztopo aurrera egitea lortzen du Gemmak, baina Elgoibartik irteera ez da erraza; eta ez da zerbitzurik ez dagoelako. Trenbidera arteko bidea egin dezake aulkian, baina tren geltokian amaitzen zaio bidaia. Trena iristen denean, tarte handiegia geratzen da trenaren eta nasaren artean: aulki elektrikoarekin ezinezkoa da pasatzea, eta eskuko aulki txikiarekin ere, justu-justu. Malda behar izaten da, eta beste baten laguntza.

Tabernetara joateko ohiturarik ez dauka Gemmak, baina, nahi izanez gero ere, gutxitan dauka sartzeko aukera. Herrian lau bat tabernatan sartu ahal da aulkia, eta sartu ahal izanez gero, komunera joaterako orduan sortzen da arazoa: ez dira egokituta egoten. “Kanpora joaten naizenean, mentalizatuta joaten naiz, komunera joan gabe bueltatuko naizela etxera”, esan du.



Zebrabide parean askotan autoak egoten dira aparkatuta, eta eulkian doanak errepidetik egin behar du bere bidea; irudian, Gemma aulkian.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

PNV, Euskal Herria ez dago salgai. Etorbizuna, independentzia!

Ezer baino lehen Hernaniko Independentzia Egunera etorri ziren milaka euskal gazte independentistek zorionak esan nahi diegu. Zorionak mehatxuen gainetik eguerditik aurrera gerturatu zirelako festara eta aldarrikapenera; zorionak egun osoan Hernanin jarri zuten jai eta aldarrikapen giro ederragatik; zorionak poliziak Independentzia eguna zapuzteko saiakera egin zuenean gogor erantzuteagatik eta borrokaren duintasuna zer den herri honi erakusteagatik, beste behin ere. Gure buruarekin oso pozik eta indartsu egon behar dugu Independentzia egunera batu ginen guttiok. Ikaragarrizko gazte belaunaldia gara! Larunbatean ikusi genuen edozein amets, edozein proiektu burura eramateko aski indar duen gazteria garel!

Politiko profesionalak, poliziek eta epaileek esaten dituzten gezurretatik haratago Independentziaren aldeko gazte uholdea batu ginen Hernanin.

Baina bertan, nola ez, PNVren Espainiako Poliziak, Espainiako Auzitegi Nazionalaren debekuari zintzo-zintzo jarraituz; beti bezala, zakur inozoek egiten duten moduan; karpa handiaren sarrera eta Atsegindegi plaza hartu zituzten Balzaren poliziek. Gerra argazkia ipini nahi zuten PNVren txakurrek.

20:00etan manifestazioa abiatu genuen Tilosetik eta, amaitzear zela, berriz ere Tilosera sartzen hasi ginenean, Txantxillako aparkalekutik jaitsi zen polizia autonomikoa dena txikitu asmoz. Euren ol-

dartzearen ondorioz hainbat pertsona zauritu ziren (hainbat pilotakada jaso zituzten hainbat pertsonak buruan eta hanketan) eta beste hainbat atxilotu egin zituzten.

Zoriondu nahi dugu, lehenbizi, bertan baturiko gazteek izandako jarrera. Poliziaren oldartzearen aurrean gureari tinko eusteko jarrera hori, poliziari bidea itxtekoa eta aurre egitekoa. Ez gara aske biziko kopetaraino drogaturiko eta armaturiko poliziek erabaki ahal badute zer egin ahal dugun eta zer ez...

Beste behin ere PNV zer den ikusi genuen. Madrildik agindu eta zintzo-zintzo betetzen duena. Gasteizen erabakiaz eta Euskal Herriaz hitzak bai erraz esan, baina ekintzen bidez erakusteko garaian Madrilak esandakoari amen Jesus.

Esan genuen harrera ekitaldian aste honetako argazkia Madrilan ikusi genuela, PSOE UPNrekin eta PNVrekin batuta agertu zenean aurrekontuen bozketan. Hernanikoa argazki horren plasmazio praktikoa da. PNVk beste behin ere erakutsi zuen independentismoaren aurka edozein tresna erabiltzeko gai dela, eta atzo Hernanin gertatutakoa bizi zuen edonork ikusi zuen bere poliziak herritarrekiko zein errespetu duen, zer errespetu duen Sabin Etxeko alderdiak herri honetik eta herritarrekiko.

Horregatik, larunbateko gertakariei erantzuteko eta adierazteko PNV ez dela abertzalea, Espainiaren menpeko egiturako txontxongilo bat gehiago besterik ez, hurrengo ostiralerako mobilizatzerako deitu nahi dugu euskal gazteria.

PNV eta bere akolitoek Gernikatik Gasteizera gezurrean eta iruzurrean oinarritutako zirko huts bat egiten zuten bitartean, euren negoziozalekeriaren eta Espainiarekiko menpekotasunaren biktima garen gazte belaunaldiak borrokan irabazi arte aritzeko konpromisoa berretsi zuen Hernanin. Orain herrietan dugu eguneroko lana, atzo esan genuen bezala: ez dugu esango erraza izango denik, baina guk ahal dugu! Guk behar dugu! Abiatzen dugun ikasturtea ez da fase baten ikasturte bat gehiago; oraingoa definitibo da! Dena dugu gure alde, gure eskutan dago erantzukizunez aurre egitea bi estatuen ukapenari eta biharko Euskal Herri berria eraikitzea! Gurea da garaipena! Gora gu ta gutarrak! Etorbizuna Independentzia!

20an manifa Plazatik.

Gazte independentistak

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxe: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Ibai
Portu

Krisialdia bazetorrela iragarri ziguten. Goizero-goizero, azken hilabeteotan, lanera bidean irratia jarri eta lelo berdina en-

tzun izan dut. Hara bada, krisialdia iritsi da. Horren aurrean, gizabanako moduan neronek zer egin dezakedan maiz galdetzen diot neure buruari. Baina mundu mailako fenomeno hori ganoraz uleretzen ez dudanez, beti erantzun berarekin konformatu behar izaten dut: lan egin motel, gogor lan egin. Baina gogor lan egin orain dela hiru, eta bi eta urtebete egin izan dudana da eta egoerak erabat txarrera egin du. Ez ote dago ba, pixka-pixka bat bada ere, krisialdia baretzeko gaitasuna, nire esku? "Ez ba, gaitz hori Amerikako Estatu Batuetatik eta Europako Batasunetik zetorrek. Hik, isil-isilik, pasa egin behar, ahal duan bezala", esaten dit izkutuko ahots batek.

“Elkar laguntzeko prestatuago dagoen mundua nahi dut. Nondik hasiko naiz?”

Gizarte kapitalista honetako talde dominatzaileek bi langa ezarri baitzizkigute betidanik: behekoa eta goikoa. Guk noizbait goikoa ukitzea helburu dugu, konturatu gabe goiko langa honetara inoiz ez garelako iritsiko, imaginarioa delako. Ukitzeaz gaudenean, norbait etorri eta txast!, berriro ere apurtxo bat igoko digulako. "Lastima, zorientasuna beste baterako", esango digu urritiko ahotsak. Txarrerako edo onerako, "atzera ezin diagu gelditu" deitzen den kultura batean bizi gara. "Hark zer eduki, nik gutxiago ez" ere deitu izan dute beste batzuek. Baina burbuila hau eskuetan lehertu zaigu. Bat-batean, arnasa sakon hartu eta pentsamendu batek irribarrea sorrarazi dit: maitasuna ezin digute erosi. Guk ez diegu inoiz salduko. Elkar laguntzeko prestatuago dagoen mundu bat eraiki nahi dut. Nondik hasiko naiz, Oihana?



Oihana
Tarragual

Aiiii, Ibai, sentitzen dut, baina ilusioz betetako zure asmoak utopia hutsa direla iruditzen zait. Zoritxarrez, gaur egun dena erosi eta saldu daiteke: sexua, maitasuna, justizia, denbora... edo horretan saiatzen dira behintzat goiko langakoak.

Denak du prezio bat. Demi Moore eta Robert Reforden, *Una proposición indecente* pelikulak argi uzten du hori. Diruaren truke zure bikotea beste batekin oheratzen da. Konfiantza erosi daiteke.

“Zoritxarrez, gaur egun dena erosi eta saldu daiteke”

Mexikon adibidez, auto istripu batean, polizia eskupeko ederra ematen badiozu, lasai egon zaitezke, errua bestearentzat! Justizia erosi daiteke.

Estatu Batuetako Cher abeslari eta aktorea zenbat aldiz operatu ote da ederragoa izateko? Denborari aurrea hartu nahi dio eta gazte mantendu betirako. Gaztetasuna erosi daiteke.

Hori da mundu zabalean nire aurrean ikusten dudana. Baina ez da hori nire begiek ikusi nahiko luketena.

Elkar laguntzeko prestatuago dagoen mundu bat eraikitzea nahi duzu. Jarri prezioa benetako balioa duten zure inguruko gauzei. Eta hari horretatik tiraka, akaso zerbait lortuko duzu.

Amari goizero muxu bat oparitu, aitona-amonei solasalditxo eder bat eskaini, seme alabei gauero ipuin magiko bat kontatu, bikoteari belarrira hitz politikak xuxurlatu...

Ni neu ez naiz diruagatik saltzen (beno hipotekarako sos batzuei ez nieke ezetz esango, krisian gaude eta, kar, kar kar...)



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Datorren urterako tasak eta zergak Kontsumo Prezioen Indizearen gaintik igoko ditu Udalak. **Zer iruditzen zaizu 2009rako zergak %5,5 igotzea?**



Luis Gurrutxaga
68 urte, jubilatua

Ulertzekoa da. Denon artean ordaindu behar ditugu herriko gastuak, eta normala da urtetik urtera zergak igo behar izatea. Azken batean, gure diruarekin funtzionatzen du Elgoibarko Udalak, eta beharrezkoa da herritarrek zergak ordaintzea.



Aurora Rodriguez
50 urte, etxekoandrea

Gaizki, azkenean langileok ordaintzen ditugu gastu guztiak. Gainera, krisi egoeran gaude eta ez da momenturik onena zergak igotzeko. Nire ustez, itxaron egin beharko lukete. Aurten ez igo, eta datozen urteetan, egoera hobetzen bada, gehiago igo.



Saray Yagüe
26 urte, administraria

Gaizki. Egoera zaila datorkigu, eta 2009. urtea gogorra izango da. Langabezia gora doa eta hipotekak ordaintzen ere nahikoa lan daukagu. Datorren urterako igoera gogorregia dela iruditzen zait. Udalak kontuan hartu beharko luke herritarren egoera ekonomikoa.



Eduardo Iraegi
82 urte, jubilatua

Igoera handia da. Diruak gero eta gutxiago balio du, eta prezioak igo egin behar direla ulertzen dut, baina ez hainbeste. Orain, gainera, krisia besterik ez da entzuten, eta ez da momentu ona zergak igotzeko. Nola edo hala moldatu beharko dugu.

ORAIN **BIDISKIN BODY** MAKINAREKIN
GORPUTZ PERFEKTUA
EDUKI DEZAKEZU!

ESKAITZA!
10 APARATOLOGIA
SAIOKO SORTA
+
10 MASAJE
SAIO
BEREHALA
ORDAINDUTA
LEHEN 700 €
ORAIN 350 €

SAIO SOLTEAK
LEHEN 80 €
ORAIN 40 €

ESKAITZA!

DEPILAZIOA DIBIDOZKO LASERRAREKIN!

3tik 6 saiotara /
Saio bat 3 hilabetero

Kontsulta eta Informazioa Doan!

Judith
EDERGINTZA

Diruaren indizea - Tel. 907 14 20 20 / 947 742 118

HANKA OSOA + IZTERRONDOAK
3. saiotk aurrera 30%
420 €
1. saiotk besapeak doan
600 €

AURPEGI OSOA
150 € saioa

IZTERRONDOA + BESAPEA
3. saiotk aurrera
50%

BESAURREAK
150 € saioa

MUTILENTZAT BEREZIKI!

BULARRA + SABELALDEA
400 €

BIZKARRA
350 €
(35 urtetik beherakoek kontsultatu)



Euria egiten duen egunetan San Franzisko kalean ura pilatzen da: "San Franzisko kalearen maila ez da egokia. Erdialdean aldapa dauka, eta euria egiten duen egunetan ur mordoa pilatzen da bertan. Ez da batera eroso ura putzuen gainetik ibiltzea. Gainera, oso labain jartzen da, eta arriskutsua da. Zeozer egin behar dela iruditzen zait".



Konpondu dute zezenak hondatutako portalaren atea: "Bazen garaia! Denbora luzez egon gara aterik gabe, baina azkenean jarri digute. Hala ere, lehenago konpondu beharko luketela iruditzen zait".

Txalo bero bat Expresion Sonora taldeari, herriko emakume talde baten partez: "Mila esker joan zen zapatuan eman zenuten kontzertuagatik. Oso ondo pasatu genuen aspaldiko denborak gogoraturaz. Polita izango litzateke Elgoibarren beste emanaldiren bat emango bazenute. Segi horrela!".



Zuen kezak, galderek edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkolizarra.com
949-74 41 12

Soraluze

GAZTAÑERRE



Azoka eguna, azaroak 8

Goizean zehar: Baserritarren eta artisauen azoka, joladunak, bertsoariak, kale animazioa, umeentzako jolasak...

15:00etan: Herri babajana Karpan.
19:00etan: Imuntzo eta Belokirekin erromeria karpan.
(Tartean, Larrain Dantza).

**Baserriaren etorkizuna eztabaidagai
Hitzaldiak astean zehar**

<p>Azaroak 5, eguaztiena Mahai inguruak: Baserria eta gazteak etorkizunari begira. Gonbidatuak: Itziar Arkonada (Uztaro kooperatiba-EHNE), Itziar Ansola "Mausiba" (gazteak), Peio Rubio (nekazari ekologikoa), Josu Gil (artzaiak-EHNE). 19:30ean Karpan. Ondoren, gazta dastaketa.</p>	<p>Azaroak 7, barbakua Hitzaldia: Euskal Hazi Sarea. 19:00etan Karpan.</p>
<p>Azaroak 6, eguena Hitzaldia: Hitzez, emakume baserritarren taldea. 16:00ean Udaletxean. "Transgenics" bideoa. 19:00etan Karpan.</p>	







Datorren urterako tasak eta zergak %5,5 igoko ditu Udalak

Zaborrak %27 igoko dira, Kirol Patronatuko kuotak %12 eta San Lazaroko tarifak %7,5

Elgoibarko Udalak %5,5 igoko ditu 2009. urterako tasak eta zergak. Zaborraren gaineko zerga izango da igoerarik handiena jasango duena; %27,34, Kirol Patronatuko kuotak %12 igoko dira eta San Lazaro egoitzako tarifak %7,5.

Alfredo Etxeberria alkateak igoera horien arrazoiak eman zituen, Udal Gobernuaren izenean. Bere esanetan, zaborraren gaineko zergaren igoera "nabarmena" da, baina Udalak egingo dituen azpiegitura inbertsioen ondorioa da: "Zaborra birziklatzea eta konpostatzea bultzatu nahi du Udalak, eta horretarako beharrezkoak diren azpiegiturak jarriko ditugu. Herritar bakoitzak sortzen duen zaborra ordaindu behar du, eta Udalak zabor hori biltzeko medioak finantzatzeko ditu", dio Etxeberriak.

San Lazaro egoitzako tarifen igoeraren arrazoiak Foru Aldundiko prezioekin berdintzea dela azaldu zuen alkateak. Bien arteko diferentzia %17,25 da, eta poliki-poliki alde hori txikitzea da helburua. Datorren urterako tarifak ondorengoak izango dira: gaixo autonomoentzat 49,68 euro eguneko, dependentziadun gaixoentzako 60,61 euro eguneko eta dependentzia handidunentzako 75,50 euro eguneko. 1996ko abenduaren 31 baino lehen sartu ziren

gaixoez 692,77 euro ordainduko dituzte hilerok. Hala ere, "igoera horrek ez die egoitzako bizilagunei eragingo, izan ere, bakoitzak bere ondasunen arabera tarifa ordaintzen du-eta", azaldu zuen alkateak.

Azkenik, Kirol Patronatuko kuota %12 igotzearen arrazoiak erakundearen autofinantzaketara mailarekin lotuta dagoela azaldu zuen Etxeberriak: "Kirol Patronatuak independenteagoa izan behar du, eta Udalak kirol azpiegituak hobetzeko erabiliko du diru hori". Besteak beste, padel pistak eta nagusientzako kirol makinak jarriko dituztela aurreratu zuen.

Horrez gain, datorren urterako ordenantza fiskaletan hanibat bonifikazio egongo dira: Ogasun Higiezinaren Gaineko (IBI-OHG) zergan familia ugarietzako, energia berriztatzaileak erabiltzen dituzten etxebizitzentzako, etxeetako oztopo arkitektonikoak murrizteko eta Eusko Jaurkitzaren Bizigune programan parte hartzen dutenentzako.

PP eta Ezker Batua-Aralar kontra

PP eta Ezker Batua-Aralar alderdiak tasen igoeren kontra azaldu dira. Javier Nuñez PPko zinegotziak prentsurrekoan esandakoaren arabera, ez dio babesik emango 2009rako aurreikusita dauden zergen eta tasen igoerei, alde handiarekin



gainditzen baitute kontsumo-prezioen indizearen (KPI) urte bukaerarako aurreikuspena, %4an estimatua dagoena. Unai Zulaikak EB-Aralarren izenean, bestalde, aurrekontu zehatzak ikusi gabe ezin dutela tasa igoerarik babestu adierazi du. "Gainera, krisiaren ondorioz 2009. urtea gogorra izango da, eta zergak ez igotzeko momentu ona izan daiteke", esan du Zulaikak.

BARREN astekaria gainontzeko alderdien iritzia jasotzen ari da. Hurrengo alean eta www.elgoibarren.net atarian irakurri ahal izango dira.

Astoak irabazi zuen sei gizonen kontrako lehia



Argazkiak: Aitor Zabala



Otsourtiako Santos astoak sei gizon baino indartsuagoa dela erakutsi zuen urriko azken zapatuko ferian, zortzi plaza eta erdiko aldearekin. Lagun Artea herri kirol taldeak antolatuta, Nafarroa plaza probaleku bilakatu zen joan zen zapatuan, urriak 25.500 kiloko harriari tiraka hogei minutu egin behar zituzten. Astoak ekin zion probari eta hogei minutuko lanaren amaieran 68 plaza eta erdi eta lau metroko marka ezarri zuen. Gizonak astoaren lana hobetzeko asmoarekin irten ziren plazara, baina lan handia egin arren, ezin izan zuten animalia marka hautsi. 60 plaza eta lau metroan mugitu zuten 500 kiloko harria. Oraingoan animalia nagusi.

Izena **Fernando Bert**



Espainiako Auzitegi Nazionalak absolbitu egin du Fernando Bert, froga faltagatik. Fiskaltzak zortzi urteko kartzela zigorra eskatu bazuen ere, Bert zigortzeko nahikoa frogarik ez dagoela erabaki du Alfonso Guevara, Guillermo Ruiz Polanco eta Maria Angeles Barreiro magistratuek osatutako epaimahaiak. ETAK Burlatan zuen etxe bateko kutxa txiki batean topatu zituzten aztarna batzuk zirela-eta epaitu nahi zuten Bert. 2003an ETako kide izateagatik kondenatu zuen Bert Frantziako Justiziak eta 2006an Espainiaratu zuten. 2008ko martxoan bermepean irten zen kalera. Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek salatu dute Espainiako estatuak "bahituta" izan dutela urte t'erdiz.

Berbia **Krisia**

Krisiaren ondorioak Rodisa enpresara ere iritsi dira. Automogintzarekin lotuta dago Rodisa, eta sektoreak bizi duen motelaldiaren ondorioz, eskaeren kopurua %30 jaitsi da. Hori dela eta, enpresak neurriak hartu behar izan ditu: momentuz, langile bakoitzak abenduaren 31ra arte hamabost egun jai hartu beharko ditu. Enpresak ordaindu egingo dizkie egun horiek langileei, eta datozen urteetan berreskuratu egin beharko dituzte. Dena dela, urtariletik aurrera ez dakite zer gertatuko den. 380 langilerekin Elgoibarren dauden enpresarik garrantzitsuenetakoa da Rodisa.

Irudia **Odol emaileak**

Elgoibarko hamazazpi odol emaile omendu zituzten joan zen domekan, urriaren 26an, Arraten. Hauek izan ziren omenduak: Justino Badiola, Julio Garcia, Angel Garcia eta Juan Manuel Mekolalde (50 aldiz osola emateagatik), Jone Garcia, Maria Isabel Mujika eta Maria Pilar Osoro (40 aldiz) eta Marivi Agirregomezkorta, Maria Pilar Aranzabal, Paulo Arriola, Rosario Barrainkua, Camilo Conde, M. Angel Dominguez, Miguel Fernandez, Inazio Garmendia, Cristina Gorriti eta Lorea Zubizarreta (25 aldiz).



Bat bateko itzulpen sistema pleno aretoan

Udalak aldi bereko itzulpenak egiteko sistema jarri du Udaletxeko Pleno Aretoan. 2008ko aurrekontuetan 25.000 euro onartu zituen Udalak lan horretarako. Sistema horren helburua da Plenoetan euskararen erabilera handitzea. Horri esker, zinegotzi euskaldunek euren jardunak euskaraz egiteko aukera izango dute, eta aldi berean, euskaraz hitz egiten ez dutenek esandakoa ulertzeko aukera izango dute. Atzoko plenoan estreinatuta behar zuten sistema berria.

Landa inguruneak sustatzeko diru laguntzak

Landa ingurunea sustatu eta gartzeko Erein programako diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 21ean amaituko da. Informazio gehiago Debemen elkartearen: 943 744 067.

Elkartasun zozketa

Amnistiaren aldeko Elkartasun Zozketan furgoneta bat, ordenagailu bat eta nekazal etxe batean egonaldia zozketatu dituzte. Hauek dira zenbaki sarituak:

1. saria: **097.921**
(ordezkoa:027.191)
2. saria: **106.999**
(ordezkoa: 009.723)
3. saria: **036.934**
(ordezkoa: 110.782)

Biluzik sexologia zerbitzua

Gazte Informazio Guneak Internet bidezko Biluzik sexologia zerbitzua martxan du. Horri esker, sexologiari buruzko edozein kontsulta modu anonimoan egiteko aukera dago. biluzikzerbitzua@yahoo.es helbidera bidali daitezke galderak, eta Eider Goiburua sexologoak erantzungo ditu. Horrez gain, Gazte Informazio Gunean sexologiari buruzko hainbat liburu dituzte, eta liburu horiek mailegatzeko aukera ere badago.

Jon Larrañaga

LOKOTX BILTZAILEA

Lokotx bilketan 50 lokotx jartzen dituzte bi ilaratan, eta batetik bestera metro eta 25 zentimetrotako tartea dago. Trukurik ez omen dago batzerako orduan, hori dio behintzat Jon Larrañaga mendarorarrak, lokotx biltzen Gipuzkoako txapeldunak: “Normalean atzetik hasten naiz, baina hor ez dago sekreturik. Hala ere, pentsatuta eduki behar duzu zelan egingo duzun lana”.

Edurne Burgaña



“Lokotxak biltzen punteria ona edukitzea da trukua”

Gipuzkoako lokotx biltzaile onena zara. Zenbat denbora behar izan duzu titulua lortzeko?

Onera ez dakit, baina aurrea atera nuena bai. Aurretik korrika eta ibiltzen nintzen, baina lokotxak batzen Gipuzkoako txapelduna izateko urte bakarra behar izan dut: txikitzen herriko jaietan eta auzoko jaietan ibiltzen nintzen aitak esanda. Elgoibarren ere bi aldiz egin izan dut lokotx biltzea Santi Maiztegiarekin. Lehengo urtean txapelketarako prestatzen bi edo hiru hilabete lehenago hasi nintzen, eta bigarren geratu nintzen, eta aurten lehenengo postua lortu dut.

Lokotxak biltzeko orduan zer da garrantzitsuena, azkarra izatea?

Azkarra izatea bakarrik ez, punteria ona edukitzea ere bai. Azkarrean, azken batean, ondo preparatuta, denok antzera ibiltzen gara: sei edo zazpi minuturen artean. Baina tiroa kale egitea edo barrura sartzean dago trukuak: seguru ibiltzea da garrantzitsua.

Gipuzkoako txapela lortuta Euskal Herriko Txapelketarako txartela eskuratu zenuen...

Abuztuaren 15ean jokatu zen txapelketa Baliarrainen, Legorreta alboko herri txiki batean. Zortitik seigarren egin nuen. Probintzia ba-

koitzeko lehenengo bi sailkatuak joaten dira, eta lehenengo biak nafarrak izan ziren. Normalean eurek irabazten dute, eta alde handiarekin gainera. Maila altua daukate: afizio gehiago dago, eta txapelketa aurretik kanporaketak egiten dituzte. Hamar edo hamabi lagunek hartzen dute parte, eta horietatik zortzik, adibidez, nik Gipuzkoako txapela lortzeko egindako marka baino hobea egiten dute.

Zer entrenamendu egiten duzu urtean zehar?

Korrika ibiltzen naiz, eta gero, bi edo hiru hilabete falta direnean, oterra hartu, lokotxak jarri eta punteria afinatu. Hori da sekretua: fisikoki ondo bazaude, punteria da behar duzuna.

Behobiarra joateko asmorik?

Asmoa bai, dortsala eskatuta daukat. Bi bider joan naiz eta nire marthan ibiltzen naiz. Aurten gehiago prestatzen ari naiz, baina gehiegi gabe. Joan den urteko marka hobetzeko asmoa daukat.

Herri kiroleetatik zein gustatzen zaizu gehien, lokotx bez aparte?

Aizkora da gehien gustatzen zaidana. Beste guztiak iruditzen zaizkit kirol gogorak eta

etorkizun gutxikoak. Hemen inguruan ez dago afiziorik: trontzan eta aizkora gehien. Baina kirol gogorak dira, eta hortik ez da inor biziko. Poltsikotik gastatu behar izaten dute, eta sarrera gutxi egoten dira.

Lokotxak biltzea eta korrika egitea batetik, baina, beste kirolik gustatzen zaizu?

Esku pilota eta txirindularitza gustatzen zaizkit: oro har kirol guztiak gustatzen zaizkit ikusteko, baina, gehien, pilota. Irujo da nire favoritoa, eta gainera, hasi da berriro martxa hartzen.

Herri kirolak ikustera joaten denik badago?

Inguruko jendea ibiltzen da: kanpotik jendea harritu egiten da. Aizkora-eta telebistak ematen dituzenez badakite, baina, gainerako kirolak ikusterakoan arraroa egiten zaie. Nik neuk ere etxetik ezagutzen ditut herri kirolak: aita trontzan ibiltzen zen, eta osaba ere trontzan eta aizkora.

Lokotxak biltzen jarraituko duzu?

Defenditu egin behar dut titulua. Uztailean izaten dira kanporaketak, herriko jaietan, eta abuztu amaiera aldera Euskal Herrikoa. Berriz irabazteko ahal dudana egingo dut.

Larrialdi zerbitzua handituko dute Mendaroko ospitalean

Obrak dauden artean, aparkaleku gutxiago izango dira

Mendaroko Ospitalea txiki geratu da larrialdi zerbitzua eskaintzen duen eraikina. Leku falta arazoari konponbidea emateko 400 metro koadroko eraikin berria hasiko dira eraikitzen pare bat aste barru, azaro hasieran.

Lanek dirauten bitartean hainbat aparkaleku galduko ditu ospitaleak. Hori dela-eta, herritarrei garraio publikoa gehiago erabiltzeko eskaera egin diete zentroko arduradunek.

1992ko instalazio bera

Eraikin berriak 400 metro koadro eta bi solairu izango ditu eta eraikuntza lanek luze jo dezaketela, aurreratu du Gorka Sarasolak, Mendaroko Ospitaleko zuzendari kudeatzaileak: "Hasten direnetik 12-14 hilabete iraun dezakete. 1992an ospitalea ireki zenean geneuzkan instalakuntza berdinak ditugu, baina zerbitzua asko aldatu da eta behar berrietara moldatzea beharrezkoa zen". Larrialdi zerbitzuetan 30.000 kasu hartzen dituzte urteko. Berrikuntza lanek bi milioi euroko aurrekontua izango dute.



Eraikuntza lanek irauten duten bitartean areagotu egingo dira Mendaroko Ospitaleak gaur egun dituen aparkaleku arazoak. Arazo horri aurre hartzeko edo ondorioak gutxitu nahian, autoa beharrezkoa denean bakarrik erabiltzeko, eta garraio publikoa gehiago erabiltzeko eskaera egin dute ospitaleko arduradunek.

Etxeko ospitalizazioa

Bestalde, Debabarrenean urte hasieratik etxeko ospitalizazio zerbitzua dago martxan: batetik, gaixoak etxean tratatzea ekartzen du, eta bestetik, ospitalean okupazioa gutxitzea. Orain, eskaerari aurre egiteko, asteburueta zabaldu dute zerbitzua.

Bilbолоopeko esperientzia oso ona izan dela esan dute Mendaroko Munlet taldekoek



Argazkia: DenaFlows

Joan den asteburuan Mendaroko Munlet musika taldeak Bilbолоop jaialdian hartu zuen parte. Tendentzia berriak batzen dituen jaialdiak, popa eta elektronika, eta "esperientzia oso ona" izan dela diote kideek. "Kafe Antzokiaren hiru laurdena inguru bete zen, eta gu ez gaude ohituta hainbeste jenderen aurrean jotzen. Gainera, ETB3 kate berriak grabatu egin zuen saioa, eta telebistan ari dira ematen.

Autodefentsa ikastaroa emango dute

Azaroaren 5ean emakumeentzako autodefentsa ikastaroa hasiko dute Mendaron. Hileko lau eguztetenan izango dira klaseak: azaroaren 5ean, 12an, 19an eta 26an. izena ematerako orduan 25 euro ordaindu beharko dira. Parte hartu ahal izateko hamabost urtetik gorakoa izan behar da, eta plazak mugatuak dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu ondoko telefono zenbakietara: 620 562 624 edo 647 653 818.

Ezenarro eta Goikoetxea New Yorken ariko dira antxintxika

Igor Ezenarro eta Haritz Goikoetxea mendarotarrek domekan New Yorken egingo den maratoin hartuko dute parte. Ing New York City izeneko proba mundu osoan da garrantzitsua, eta milaka atleta aritzen dira bertan.

Mendarotarrek proba askotan hartu dute parte aurrez, Behobiakokan, adibidez. Baina domekan egingo duten proban parte hartzeko ilusio handia dutela azaldu dute.

Ordenantza Fiskalen tarifa %4,9 igoko da

Joan den astean, Mendaroko Udalak plenoa egin zuen: EAJ-PNVko bost zinegotzik, EAKo hiruk eta PSE-EEko batek hartu zuten parte. Landutako lehen puntua 2008-2010 Udaltz hitzamenarekin bat egiteko atxikimendua izan zen: EAJ-PNV eta EAK emandako aldeko zortzi botoei esker onartu zen. Datorren urterako Ordenantza Fiskalen tarifen aldaketa izan zen landuko beste gai garrantzitsu bat: %4,9 igoko dira. Zaborren gaineko zerga Amankomunazgoak zehaztutakoa izango da; erabakia aho batez onatu zuten.

Gure berbak

Aditza (31): Ahalera 1

Ahalerazko aditzak aztertuko doguz aste honetan: *etor daiteke, har dezaket*, eta era horretakuak, hain zuzen.

Zer da ahalera? Ba, aditzaren ekin-tza burutzeko gaitasuna edo aukera adierazteko erabiltzen dogun aditz-formia; *liburu hori erosi neike* esaten dogunian, adibidez, liburu erosteko moduan naguala adierazten dau, ez erosi dodala, baizik erosteko moduan naguala: horixe da ahalera.

Elgoibarko ahalerazko aditzen lehenbiziko bereizgarria, subjuntibuan eta aginterazkuetan pasatzen zan bezelaxe, aditz nagusixa ez dixela aditzoiñaren forman (*etor, har...*) baizik aditz-partizipiaren forman (*etorri, hartu...*).

- ♦ *Haiñ azkar ezin leikezek etorri.*
- ♦ *Nik esaten dot eze edozeiñek ezin zeikiela ibilli haura katxarro zahar haura.*
- ♦ *Nahi dotenian erosi neike liburu edar hori.*

Beste ezaugarri bat aditz-laguntzailliaren erruan daukagu; euskera batuko ahalerazkuetan, aditz iragankorretan (*saldu, erosi, irakurri, hartu, ...*) *EZAN aditza da laguntzailliaren errua: *deZAKet, dieZAiokegu, zeZAKeten*, eta abar. Elgoibarkuan, berriz, *EGIN* errua daukagu (bokal arteko -G- hori galdu egitten da ahoskatzerakuan):

Egin neGike ⇒ *egin neike*
Sartu zeGinke ⇒ *sartu zeinke*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1956

Aste honetako erretratu Itziar Beristainek laga digu. 1956. urtean ateratakoa da, Domund egunean, hain zuzen ere. Garai hartan, honela jantzen ziren herriko gazteak diru-bilketak egiteko.

Gogoratu ditzagun erretratuko neskak:

Goian, ezkerretik eskumara: Edurne Lasa, Maria Luisa Arozena, Begoña Barrutia (†), Regina Arrieta, Arrate Astigarraga, Maria Luisa Astigarraga, Maria Luisa Zubiaurre, Itziar Beristain.

Bigarren ilaran: Belen Elorza, Juani Bueno, Arrate Alberdi, Seberina Santos (†), Julita Bernedo, Mertxe Egurrola.

Behean, makurtuta: Mari Karmen Jauregi, Mari Jose Mugertza eta Maite Beristain.



ESKERTZA

FELIPE ATRIO MENENDEZ

2008ko urriaren 19an hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Danbaka III. MUSIKA LEHIAKETA**Heavy metala, metal eta hardcorearen batuketara eta rocka zentzu zabalenean**

Danbakaren hirugarren edizioko lehenengo kontzertua pasatu da, eta hortaz zuzenekoetako motor guztiak piztuta daude dagoeneko. Lehenengo emanalditik taldeek maila altua erakutsi dute eta ikusleek ere ederto erantzun zuten, Espaloia berotu eta giroa sortuz. Ea horrela jarraitzen duen! Barixaku honetann, rocka zentzu oso zabalean landuko duten taldeak arituko dira. Horren adibide dira Ni_Neu eta Adi Holden, esaterako. Baina, doinu gogorragoak ere entzun ahal izango dira. Hala, Lord Witch taldeak power metala landuko du, ahots melodia eta gitarra landuekin, heavy patrioekin agintzen duten moduan. Eta, bestalde, Scam taldeak izan duen garapena zuzenean ikusteko aukera izango dugu. Punk-pop edo hardcore melodikotik abiatuta, hardcorea, metala, emocorea eta melodia batzera heldu dira aspaldian.



Ni_Neu (Eibar)
Ni_Neu talde askotan (Kafha, Jak...) ibilitako Aitor Sologaistoa musikari eibartarraren proiektua da. Taldeak rocka, doinu lasaiak eta elektronika batzen ditu, teklatuaren protagonismo handiarekin eta emozioa oso presente dagoela.



Scam (Aretxabaleta)
Scam taldea Aretxabaletako Mikel, Imanol, Paulo eta Anderrek osatzen dute. Gaur egun, hardcorea, metala, emocorea eta melodia batzen dituzte, Berri Txarrak eraginak gehituz. Ingeleseztan eta tarteka euskaraz abesten dute.



Lord Witch (Bergara)
Taldea 2004an sortu zuten, eta ordutik oso argi izan du euren jomuga heavy metal melodikoa edo power metala dela. Gaztekeraz abestutako kantuetan oso presente daude ahots argi eta melodikoa, gitarra riff indartsuak eta baita bateriaritmo gogorrak ere.



Adi Holden (Bergara)
Adi Holden talde berri samarra da. Proiektu honetan estilo koordinatuz zeharo aldatu dira eta rocka ikuspegi oso zabalean lantzen dute, gitarrei ukitu berezia emanez eta oraingoan, iraganean egin ez zuten moduan, euskara erabiliz, gainera.

KONTZERTUA

Gaur, barixakua. 22:30. Elgetako Espaloia. 5 euro (Gazte kutxa, 3 euro).

www.danbaka.com

DANBAKA))))III. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIENADURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA

HEDABIDE
LAGUNTZAILEA


ANTOLATZAILEA



REAGEA JAPONIATIK

Tex & The Sun Flower Seed

Tex & The Sun Flower Seed musika taldea japoniarra da, Tokion bizi dira kideak, eta Elgoibarren egon berri dira. Rock bandatzat dute euren burua, baina letretan zabaldu nahi duten mezua reage musikatik gertuago dago. Japoniatik irten diren lehen aldia izan da, eta hemen publiko oso ezberdina topatu dutela diote.



Musika hizkuntza unibertsala diote batzuk, eta munduan barrena hainbat musika estilo topa ditzakegu. Herrialde bat musika estilo batekin lotzea gauza arrunta da, baina molde guztiak apurtzen dituen taldea Elgoibarren egon berri da. Japoniatik Tex & The Sun Flower Seed taldeak, reagea egiten du.

Taldea honako musikariek osatzen dute: Testsuya Sukeyasu, Tekkannon, Takeshi Wada, Keishu Honda eta Kenji Satok. Eta euren interpretea Sogo da: haurtzarora Argentinan egin zuen, eta gaztelaraz argentinaren moduan egiten du berba. “Rock banda bat gara, baina ska eta reagea moduko generoei ere ez diegu muzinik egiten. Hala ere, generoez haratago, letretan zabaldu nahi dugun bake mezua da garrantzitsuena. Errebeldia horrek reage mugimendura hurbiltzen gaitu”, esan dute.

“Esperientzia puroa”

Euskal Herrian egonaldia egin zuten joan den astean. Elgoibarren egon ziren: “Hemen egiten den musikaren mailaz jakitun ginen, batez ere Rebel music alorrean egiten den musikaren mailaz. Beti eduki genuen ezagutzeko gogoia eta orain Jabi Quintanori es-

ker ametsa egia bihurtzeko aukera izan dugu eta hemen gaude”.

Orain dela sei urte sortu zuten Tex & The Sun Flower Seed taldea, eta harrezkero, era guztietako eskenatokietan jo dute: “Klubetan, zuzeneko showetan, aire libreko kontzertuetan eta baita kallean ere, manifestaldietan edo dei egiten dituzten edozein lekutan”.

Euskal Herrian egon diren lehen aldia da, eta bizi izandako esperientzia “bakarra, puroa” izan dela diote. “Tokion bizi gara, eta kanpora irten garen lehen aldia izan da: hemengo publikoa euskalduna da, oso ezberdina”, uste dute.

Baina, hemengo publikoa ezezaguna izan arren, bertako taldeak ezagutzen dituzte, ondo gainera: “Sagarroiren babesarekin betagarri, Fermin Muguruza eta orain Napoka Iriarekin aritu gara. Gure generoarekin bat badator, ahal dugun guztietan talde euskaldunekin lan egiten dugu”. Arrakasta handia dute gainera, euskal taldeek Japonian: “Muguruzak hasi zuen Japonia eta Euskal Herriaren arteko trukea, eta iaz Tokioko Fujorock aretoan sarrera guztiak agortu genituen”, azaldu dute.

Hemen egindako egonaldian Japoniatik janaria faltan bota dute, baina ordainetan, laguntzeko prest aurkitu dute jendea, eta, antza, horren falta nabari da Tokion.


Angel Ugarteburuk 'Milloitik mundura' liburua eman du argitara

Berriatuko Kultur Etxean aurkeztuko du gaur 20:00etan

Angel Ugartebururen liburu berriaren izenburua *Milloitik mundura*. Ume denborako oihartzunak da. Gaur aurkeztuko du, 20:00etan, Berriatuko Kultur Etxean. "Jaiotzez Berriatua aldekoa naizenez, hemen jasotzen diren gertaerak, pasadizoak, istorioak, baserriko laneko kontuak, han bertan, Berriatuko Milloi auzoan gertatzen direnez, horregatik aurkeztuko dut bertan. Eta horregatik liburuaren izenburua", azaldu du egileak.

Txiste, gertaera eta pasadizoaren artean kontaktzen ditu Ugarteburuk hainbat aldiz etxean entzundako istorioak. "Alde batetik aldean neramatzan istorioak dira, ondo gogoan ditudanak; eta bestetik, erdi ahaztuta nituenak", esan du.

Lehenik, anaiek atzerritik bidalitako bertsoak biltzen ditu liburuak. Bigarren



zatia autobiografikoa da, eskola garaiakoa. Hirugarren zatiak baserriko beharrik bazten ditu: "Denak gertaera anekdotiko bat inguruan bilduta saiatu naiz arin heltzen", Angelen esanetan.

'Grönholm Metodoa' euskarazko antzezlana ikusi ahal izango da hilaren 7an



Barixakuan, azaroaren 7an, Txalo Produkzioak taldearen *Grönholm Metodoa* antzezlana ikusi ahal izango da, euskaraz, 22:15ean, Herriko Antzokian. Sarrerak goizez Kultura Sailean, eta arratsaldean, Gazte Informazio Bulegoan erosi daitezke zortzi euro eta erdian. Gazte txartelarekin, sei eurotan. Antzezlana, multinazional batean exekutibo plaza bat betetzeko azken lau hautagaien istorioa kontaktzen du. Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ramon Agirre eta Itziar Ituño aktoreak lau hautagaien azalean jarriko dira. Gela batean bildu dituzte hautaketa prozesuaren azken probak egiteko. Lehen ikusian kosta egiten da sinestea lanpostu berari dagozkion probak direla, absurduak direlako. Baina hautagaiek gainditu beharreko proba guztiak langileak aukeratzeko teknika errealetan oinarrituak daude.

'Magia Teilatuan' antzezlana, hilaren 9an

Hurrengo domekan, azaroaren 9an, *Magia teilatuan* haurrentzako antzezlana ikusi ahal izango da Herriko Antzokian. 16:30ean hasiko da Txalo produkzioak taldearen lana. Sarrera doan izango da.

Obraren egilea Begoña Bilbao da eta itzulpena, aldiz, Julia Mariñek egin du. Magiaz jositako obra honetako aktoreak Iraitz Lizarraga, Asier Kidam eta Jorge Santos dira.

Betixa da obraren protagonista. Gozatu egiten du zeruari begira buru zientifikoa duen neskek. Gau izartsuetan, etxeko terraza-behatoki espazialera igotzen da izarrak arakatzera. Halako batean, Bruno magoa agertzen zaio eta, bere ikuspegi zientifikoari eutsiz, neskek zalantzan jarriko du haren magia. Halere, Brunok frogatuko dio benetako magia existitzen dela, gure inguruan dabilela beti. Bizitza magia baita. Baina, magia beltza ere agertuko da.

Ipuin kontalaria ariko da liburutegian, hilaren 4an

Haiena, gurea: tolerantziarako irakurgaiak ekimenaren barruan, ipuin kontalaria ariko da Elgoibarko Udal liburutegian datorren martitzenean, hilaren 4an. LH 1, 2 eta 3ko haurrentzako izango da, eta 17:00etan hasiko da.

Ekimen beraren barruan, eguaztenean, 17:30ean, liburu markatzaileak egingo dituzte.

Asisko Urmenetak hitzaldia emango du, hilaren 11n

Udal Euskaltegiaren 25. urteurreneko ekintzak direla-eta, Asisko Urmenetak hitzaldia emango du azaroaren 11n Kultur Etxean, 19:30ean. "Como aprender a hablar euskera en 40 años y 1 día facilmente" izenburupean emango du berbaldia, euskaraz. Izenburuak berak dioen moduan, euskaraz berba egiteaz jandungo du Urmenetak.

Estatu Batuetako 'Superhumans' telebista saioa Plaza Handian grabatuko dute azaroaren 15ean

Euskal Herriko kirolarien aurka lehiatuko dira saioko Pumphrey anaiak

Euskal Herriko hainbat kirolarik duten guztia eman beharko dute Craig eta Paul Pumphrey anaien aurka lehiatzeko azaroaren 15ean Elgoibarko Plaza Handian egingo duten erakustaldian. AEBetako *Superhumans* telebista saioko protagonistak dira bi anaiak, eta azaroaren 11tik 18ra Euskal Herrian egongo dira kulturaz gozatu eta herriko kiroletako kirolari onenen aurka indarrak neurtzeko.

Craig birritan izan da borroka libreko pisu astuneko munduko txapelduna. Paul lek beso bakarrarekin hainbat motatako materialak hausten munduko errekorra dauka.

'Bihurri'-ren aurka amerikarrak

Azaroaren 15ean bi anaien lehia ikusi ahal izango da Elgoibarko Plaza Handian. Kameren aurrean buruz buru aritu beharko dute bertako kirolarien aurka: Ernesto Ezpeleta *Bihurri*ren aurka lehendabizi.

Mendaron bizi den aizkolari eibartarra da *Bihurri*. Orain dela lau urte, bost metroko perimetroko pago enborra moztu zuen, kirol ekitaldi batean aizkorarekin inoiz moztu den enborrik handiena. Gainera, mar-



txoan, esku bakarrarekin bi metro eta erdiko enborra moztu zuen, inoiz ikusi gabeko erronka.

Bi showmanek beste kirol modalitate batzuetan ere hartuko dute parte: harriak jasotzen, enborrak aizkorarekin eta tron-tzarekin moztzen eta txingak eramaten, besteak beste.

Hilaren 15eko egitarua 10:30ean hasiko da, Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari

taldeak bi indartsuei egingo dien ongietorriarekin. 11:30etik 14:30era herri kirolak egingo dituzte eta 14:30etik 15:00etara Pumphrey anaien erakustaldia.

Lehiaketatik kanpo beste kirol batzuk ere egingo dituzte: hilaren 16an Urdaibai-koekin estropadak egingo dituzte, eta 17an, Zaldibian segarekin duten trebetasuna erakutsi beharko dute Tomas Aldasoren aurkako norgehiagokan.

Txankakuak hileko lehenengo osteguneko sustapena

Azaroak 6

Hileko lehenengo ostegunean, Txankakua dendek sustapen desberdinak kaleratuko dituzte. Produktuak prezio onean lortzeko aukera izango duzu!



Diru laguntzailea:  Induslari, Merkataritza eta Turismo Saria

Elgoibartarrek Samuel Sanchezekin bizikletan ibiltzeko aukera izango dute

BTT zentroko ibilbide bat egingo dute hilaren 8an

Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldea eta Samuel Sanchez txapeldun olimpikoa Debabarrena BTT Zentroa etorriko dira azaroaren 8an. Mintxetara hurbiltzen diren guztiak Samuelekin eta taldekide dituen Markel Irizar eta Aitor Galdos txirrindulari profesionalekin pedalei eragiteko aukera izango dute Mintxeta izeneko ibilbidean barrena, familia eta zaletuentzat ibilbide aproposa dena, zazpi kilometrokoa. Helduentzako hamazazpi bizikleta eta umeentzako zazpi egongo dira alokagai.

Ekipazioen zozketarako zenbakiak eta BTT Euskadi kamisetak banatuko dituzte 10:30ean. Mintxeta ibilbideko



bira 11:00etan hasiko dute, eta 12:00etan egingo dute Mintxetara buelta eta mokadua. Amaitzeko, 12:30ean, ekipazio zozketa eta Euskalteleko txirrindularien autografo sinadura egingo dute.

22 bizikleta zaletu

Bestalde, Debabarrena BTT Zentroaren Karakateko ibilbidea, ezagutzeko aukera izan zuten domekan 22 zaletuk. Iban Gonzalez monitorearen gidaritzapean, Azkarate, Irukurutzeta eta Karakateko parajeetan ibili ziren.

Ibilbidea 09:35ean hasi zuten, eta 13:15ak aldera bueltatu ziren Mintxetako harrera gunera: zulatutako gurpilek ibilbidea luzatu zuten.



Anboloko neskek hasi dute saskibaloia denboraldia



Elgoibarren 1996 eta 1997 urteetan jaiotako nesken saskibaloia taldea sortu berri dute: Anbolo. Batzuei izena ezaguna egingo zaie. Izan ere, Ego-Toki elkarteko lora zen, eta irailean hil zenez, bere omenez jarri diote talde berriari izena. Gipuzkoako Txapelketan ari dira jokatzeko neskek: lehenengo jardunaldia Oñatiko Aloñaren aurka jokatu zuten, eta, galdu arren, ilusio handiz hasi dira.

EMAITZAK

ESKUBALOA

Urdaibai **22** – Tecnifuelle **28** (Seni.nes.)
Cometel Elgo. **30** – Usurbil **17** (Jub.nes.)
Usurbil. **8** – IMH Elgo. **30** (Kad.nes.)
Alcorta Elgo. – Leizta (Seni.mut.) Bertan behera.
Bergara **27** – Pneumax Elgo. **22** (Kad.mut.)
Ikus Elgo. **17** – Zarautz A **20** (Kad.nes.)
Astigarraga Elgo. **4** – Zarautz **21** (Inf.nes.)
Aloña B **7** – Lili Elgo. **37** (Inf.nes.)
Pakita Aloña **9** – Aterpe Elgo. **24** (Inf.nes.)
Arrate B **20** – Bankoa Elgo. **17** (Inf.mut.)
Txariduna Elgo. **13** – Pulpo A **26** (Inf.mut.)

ARETO FUTBOLA

Kenci **7** – Elorrioko **2** (Nazional B)
Elgoibar **4** – Goierri **3** (Jub.)

FUTBOLA

Zarautz **0** – Haundi **1**
Elgoibar **2** – Eibartarrak **3** (reg.mut.)
Elgoibar **6** – Ilintxa **0** (Jub.mut.)
Urola **1** – Elgoibar **0** (Kad.mut.)
Aloña Mendi **3** – Elgoibar **1** (Inf.mut.)
Elgoibar **1** – Real Sociedad **7** (txiki.mut.)
Bergara **6** – Elgoibar **1** (aleb.mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 1

12:30 Elgoibar – Zumaia (Kad.mut.)

16:30 Haundi – Eibar B

18:30 Elgoibar – Mondragon (Nesk.)

Domeka, 2

12:00 Elgoibar – Mutriku (Ale.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barikua, 31

22:00 Lagunak – Arrasateko 2 (Jub.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Domeka, 2

10:30 Pneumax Elgo. – Arrate (Kad.mut.)

Entrenamenduak hasteko deia egin dute Sanlokoek

Sanlo EKT eskubaloia taldeak Elgoibar eta Mendaroko alebin neskei (1997 eta 1998an jaiotako) 2008-2009 denboraldirako entrenamendua antolatzeko asmoa duela jakinarazi nahi die. Ordutegiak zehazteke daude. Interes dutenek Olaizaga kiroldegira joan beharko dute gaur, barixakua, 18:00etatik 20:00etara.

LANA

ESKAERA

• Emakumea, etxeko lanetarako prest. Goizez edo arratsaldez.

☎ 943 743 251

• Emakumea, nagusiak zaintzeko prest edo garbiketarako egiteko. Gauzez.

☎ 699 0813 826

• Mutila, banatzaile lanak edo kamiolari lanetarako prest. ☎ 634 491 408

• Neska, umeak zaintzeko prest.

☎ 659 320 774

• Neska, nagusiak eta umeak zaintzeko prest edo garbiketarako egiteko. Goizez edo arratsaldez. ☎ 680 250 527

• Neska, garbiketarako egiteko edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 649 212 944

• Emakumea, nagusiak zaintzeko edo etxeetako eta tabernetako garbiketarako egiteko prest. ☎ 638 338 816

• Emakumea, zerbitzari lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 617 056 828

• Emakumea, lanerako prest, nagusiak zainduz esperientzia.

☎ 943 531 608

• Neska, pertsona zaharrak zaintzeko edo garbiketarako lanak (tabernan, portaletan...) egiteko prest. ☎ 699 609 190

• Emakumea, umeak zaintzeko prest, goizeko 8etatik 9etara, eskolara eramateko. ☎ 696 308 546

• Mutil gaztea, edozein lan egiteko prest. ☎ 660 213 652

• Emakumea esperientziarekin, gauzez edo asteburuetan, umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest.

☎ 650 034 445

• Neska, garbiketarako lanak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest.

☎ 663 430 810

• Neska, zerbitzari edo sukaldari laguntzailerako prest. ☎ 688 682 398

• Emakumea lanerako prest, garbiketarako lanak edo pertsona zaharrak nahiz umeak zainduz. ☎ 659 639 296

• Emakumea etxeetako portalarak edo elkarteak garbitzeko prest.

☎ 690 701 118

ESKAINTZA

• Olaizaga kiroldegiko harreraren lan egiteko jendea behar da. Euskara eta informatika derrigorrezkoa.

☎ 685 755 799 (Igeriketa lantzen)

ETXEBIZITZA

SALGAI

• 2 logelako etxea salgai Santa Klaran, altzariekin. Orain dela urte gutxi bertua, 2 balkoi. Eguzkitsua, igogailuarekin eta berogailuarekin. 198.000 euro

☎ 653 735 849

• Etxea salgai San Ignazio 3an. Hiru logela, egongela, sukalde eta komuna. Oso argitsua, balkoiduna, bista onak. Altzariekin, guztiz berritua! Gas naturala, ganbara eta igogailua.

☎ 690 786 618

• Etxea salgai Mutrikun, Samikolla pasealekuan. Oso bista ederrak, 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Dena kanporantz. Altzariekin, gas naturala eta ganbara.

☎ 670 588 480

• Pisua salgai Elgoibar erdigunean, guztiz berritzatua, bizitzan hasteko. 165.000 euro. ☎ 639 074 542

• Pisua Altzolan, salgai. Hiru logela, sukalde, bainugela eta biltegia. 108.000 euro, negoziagarriak. ☎ 680 707 639

ALOKAIRUA

• Bilbon 40m² ko atikoa alokagai, Sabino Arana etorbidean, Urkijo kale parean. Logela bat, sukaldea, egongela eta bainugela. Berria balitz bezala. 850 euro, negoziagarriak. ☎ 647 262 225

• Etxea alokatzen da Mendaron.

☎ 658 379 393

MOTORRA

• Honda CBR 600 F salgai. Beltza, 32.000 km, gurpil berriak. 6.000 euro

☎ 660 424 855

• Opel Astra 1.7, 100 zaldi, Sport. Urte eta erdikoa. Etxeko garantiarekin. 29.000 km. Beltza, oso ondo zaindua, extra askorekin. 13.000 euro.

☎ 635 750 471

• Hyundai Getz, gasolina, aurten erositia, berria. Hiru ate.

☎ 664 126 273 / 605 585 057

BESTELAKOAK

• Haritzez eginitako eskailera salgai. Bi zati konpentsatua. Altuera: 3m.

☎ 658 706 539

• Haur-kotxea salgai, egoera ezin hobean. ☎ 678 386 033

• Etxeko altzari, etrektrogailu, oheko arropa eta gortinak behar dira.

☎ 676 444 171

• Lur zati bat saltzen da. Azkaratetik Azkoitira bidean, pistaz ondo inguraturikoa, bi hektara ingurukoa.

☎ 671 977 171

ABISUAK

• Joan den ostiralean (08/10/10), trenbide kalean, karakol parean, ongi apartutako Astra gris bati kolpea eman zioten eta oharrak utzi gabe alde egin zuten. Norbaitek zerbitu jakingo balu, deitu telefonoz honetara:

☎ 646 421 217

Merino

ZAPATA KONPONKETA

- 📍 **Aterkiak**
- 📍 **Poltsak**
- 📍 **Osagarriak**
- 📍 **Oinetakoen konponketak**

Upaiz Zaharra kalea, 2
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 743 854 - 665 705 616

www.zapateriamerino.com

Garajeetako mandoak
BIKOIZTEN DIRA




SUPERFIT

...GARAJE ATEENAK,
AUTOEN ALARMARENAK,
SEGURTASUN GILTZENAK
ETA GILTZA MAESTROAK.



• Zorionak, **Emilio**, azaroaren 7an 80 urte egingo dituzulako. Emaztea eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Unai**, martitzenean lau urte egingo dituzulako. Muxuak etxekoan, Irene eta Claudiaren partez.



• Zorionak, **Andoni**, eguaztenean hamalau urte egingo dituzulako. Muxuak familia eta Larenen partez.



• Ez da berehalakoan iritsi eh, **Txepetxa**? Ondo ondo pasa eta zorionak!




• Zorionak, **Isabel!** Muxu asko zure biloben eta familiakoen partez.




• Mila kilo zorion, **Ion**, zure urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Nerea**, atzo hirurte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoan, Mikelen eta Ceciren partez.



• Zorionak **Jakes**, gaur urtebete egin duzulako. Patxo handi bat familiakoan eta Markelen partez.



• Zorionak, **Ibai**, zure laugarren urtebetetzean. Orain anaia nagusia zara!



• Zorionak, **Mikel eta Ander** bihar bi urtetxo egingo dituzuelako. Muxu asko familiakoan eta Estherren partez.

• Zorionak **Paul, Daniel eta Jon** hirukoteari urteak bete dituzuelako.

OSPAKIZUNAK



Ikastolako 8. mailako bazkaria izan zuten urriaren 25ean erretratuan azaltzen direnek. 1964an jaiotakoak dira eta 30 lagun elkartu ziren. Esan diguteenez, 30 urte elkar ikusi gabeko kasuak ere izan dira. Primeran pasa omen zuten jan-edanean eta aspaldiko kontuei hautsa kentzen, eta datorren urtean berriz ere elkartuko dira urriko azken zapatuan.



• Zorionak, **pobxolinas**, zuen seigarren eta hirugarren urtebetetzean. Familiakoan partez. Pastel haundi-haundia jateko gogoaz gaude.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu **BARRE**Neko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 74 41 12

OKINDEGIA

2 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 31 Fernandez
- 1 Yudego
- 2 Yudego
- 3 Zabaleta
- 4 Etxeberria (Errosario)
- 5 Ibañez
- 6 Garitaonandia
- 7 Etxeberria (Santa Ana)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta


Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



«Wanted»

31, barixakua: 22:15
1, zapatua: 19:00/22:15
2, domeka: 19:00
3, astelehena: 21:30

antzerkia

7 barixakua

22:15 Gronholm metodoa

Txalo produkzioak taldeak
Gronholm metodoa antzezlan
taularatuko du. Herriko
Antzokian.

9 domeka

16:30 Magia teiltuan

Txalo produkzioak taldeak *Ma-
gia teiltuan* ikuskizuna aurkez-
tuko du, Herriko Antzokian.
Antolatzailea: Kutxaren Gizarte
Ekintza.

erakusketak

2 domeka

11:00 Perretxiko erakusketa

Karakate Mikologia elkarteak
antolatuta, Deba bailarko
perretxiko erakusketa. Kultur
Etxeko sotoan.

LUDOTEKA

Azaroaren 7an
TXOBORRO MAGOA

17:30ean
Ludotekan

Sarrera doan

12:00 Shanty Oriaren
margoak eta eskulturak

Shanty Oriaren margoak eta
eskulturak ikusteko azken
eguna. 14:00ak arte egongo
da irekita Kultur Etxeko
erakusketa gela

jaialdia

1 zapatua

22:00 Garagardo festa

Gaztetxean kontzertuak
izango dira, doan.
- The wet band
- Galerna Rock

7 barixakua

Ikasle egun bikia

Bazkaria, bideo emanaldia,
eztabaidak eta kontzertuak
izango dira Gaztetxean.

besteak

4 martitzena

17:00 Ipuin kontalaria

“Haiena, gurea:
tolerantziarako irakurgaiak”
kanpaina. Udal Liburutegian.

5 eguaztena

17:30 Liburu markatzaileak
egiteko tailerra

“Haiena, gurea:
tolerantziarako irakurgaiak”
kanpaina. Udal Liburutegian.



GAZTELEKUA

**ASTEBURU
HONETAN
ITXITA
EGONGO DA**

“Wanted”, Zuzendaria: Timur
Bekmambetov. Aktoreak: Ja-
mes MacAvoy, Angelina Jolie,
Morgan Freeman, Terence
Stamp. Iraupena: 110 minutu

Aita soldatapeko hiltzailea zela ja-
kingo du Wesleyk. Aitak lan egi-
ten zuen taldeak kontratatu egin-
go du Wesley, aitaren tokia har-
tzeko. Akziozko filma da.



klik - klak

Andrea Alejandra Galler

Zure aurreneko musua espero bezalakoa izan zen?

Bai, espero bezalakoa izan zen: azkarra.

Sexuaz asko dakizu?

Eskolan-eta azaldu digutena. Ez gehiegi eta ez gutxiegi: normala.

Musuak jaso ala eman?

Ematea nahiago dut eta gero jasotako musuari erantzuna ematea.

Maitemindu zara inoiz?

Bai, behin. Baina gaur egun ez nago maiteminduta.

Bizi izan dituzu uneen artean, zein errepikatuko zenuke?

Boliviara bueltatu nahiko nuke.

Ikustezina bazina, zein tokitan sartuko zinateke gustura?

Mutilen aldagelan adibidez: barre egiteko.

Gizona zertarako izango zinateke?

Neskekin ligatzeko, eta emakumea hobeto ulertzeko.

Noren azalean bizi nahiko zenuke egun batez?

Inoren azalean; ni neu izan nahi dut.

Guraso batzuk diote seme-alaben lagunak direla. Gurasoei dena kontatzen diezu?

Ez, ez, batzuetan ezin da dena kontatu.

Posible da nesken eta mutilen arteko adiskidetasuna?

Bai, nesken artean edo mutilen artean moduan.

Jeloskorra zara?

Bai, banaiz.

Zer ikasgai izan nahiko zenuke institutuan?

Ez nuke berri bat gehituko, baina, matematikak kenduko nituzke.

Zenbat aldiz begiratzen diozu zure buruari ispiluan?

Bi bider: prestatzen ari naizenean, eta etxetik irten aurretik.

Zer aldatuko zenuke zure gorputzetik?

Kilo batzuk hartu ditut, eta kendu egin nahiko nituzke.

Edertasunari garrantzia ematen diozu?

Ez gehiegi.

Zure bertute bat?

Egia esatea gustatzen zait, baina batzuetan, nahi gabe, mina ematen dut.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



**Negu honetan,
ahaztu hotza.**

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:

3.300€

(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS

finantziazio berezia,
instalazioa hileko lueta erosaten
finantzatzeko.

+

570€

ere emango dizugu

**ESKAINZA
PAREGABEA**

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25koa izango da (Kredigas). Gauko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa guzti gorabeherakoa da, banuko instalazioa egiteko, kondentsazio-galilara (markaren arabera) eta 6 erazolatzaile (45 elementu) jartzeko. Promozio estandararen gaineko edozein alaketak, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin harikuntza alda egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com




**naturgas
energia**

Grönholm metodoa

EUSKARAZ

Azaroak 7, ostirala
22:15ean

HERRIKO ANTZOKIAN



MAGIA TEILATUAN

Azaroak 9, igandea

16:30ean

HERRIKO
ANTZOKIAN



Kultura saia



Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritza



SAREA

kutxa

Gizarte elkartea